

## ESPAÑAKO ERREGE-ETORTZEA

*Azkoitia, 1981-II-4*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren hitzak:**

Errege: Euskal-Herrira zatozen orduan ongi etorririk amoltsuena opa dizut. Bai zuri, eta bai erreginari. Ongi etorria Euskaltzaindiaren izenean eta neure izenean. Euskaltzaindiak ez du sekula ahaztuko zer eta zenbat zor dizun. Zuri esker lortu zuen bere egitekoa egiteko hain beharrezko zuen legezko nortasuna. Zuk, erregetzan sartu bezain laster, eman zenigun Onartze Dekretoa. Eskerrik asko, jauna. Gure nahia zen, zu buru zarelarik, batzarre ospetsu bat egitea, agian Oñatiko Unibertsitatean, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntzarekin batean, sortu zen lekuan, zure aitonak euskararen aldeko hitzaldi gogoangari hura egindako toki berean; baina, besterik ezean, lainoki eta ahal dudan zintzotasunik jatorrenaz, gure esker ona agertu nahi dizut.

Gure nahia zen, era berean, Euskal-Herrira etortzean, bakezko, zorionezko eta anaitasunezko giroa zuk hemen aurkitzea.

Zoritxarrez, ez da hala.

Lortuko ahal da lehen-bai-lehen!

Hala izan dadin, geure otoitzak eta ahaleginak eskeintzen dizkitzugu!

Eskerrak, jauna, eta ongi etorria berriz ere!

Eta etorrera hau herri honen onerako izan dadila!

\* \* \*

Majestad: ¡Bienvenido seáis al País Vasco, lo mismo que la reina! Quiero dirigir un afectuoso y cordial saludo en nombre de la Real Academia de la Lengua Vasca y en el mío. Euskaltzaindia no podrá echar nunca en olvido lo que os debe. Gracias a vos consiguió el reconocimiento legal que tan necesario le era para cumplir con su misión. Nada más inaugurar vuestro reinado, tuvisteis a bien otorgar el Decreto de reconocimiento de la Academia. Gracias, señor. Nuestro deseo hubiera sido celebrar bajo vuestra presidencia una sesión solemne, tal vez en el marco de la Universidad de Oñate, donde nació esta Academia, como también la Sociedad de Estudios Vascos, con ocasión de un histórico Congreso inaugurado por vuestro augusto abuelo con un

discurso en el que, por cierto, animaba a los vascos a que trabajasen por la conservación y el cultivo del viejo euskara; y aunque no haya sido posible tal acto, con toda sencillez, pero eso sí, de corazón, queremos expresarle nuestro reconocimiento.

Nuestro deseo hubiera sido, asimismo, que al venir a Euskal-Herria, hallaseis aquí un ambiente entrañable de paz, cordialidad y bienandanza. Desgraciadamente no es éste el caso. ¡Ojalá cuanto antes se logre este anhelo! Para que así sea le prometemos nuestras oraciones y empeños. Gracias, señor, y que vuestra estancia en el país os sirva para mejor comprender la situación y arbitrar los oportunos remedios.